

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 7,9 milioi euro jarri ditu garapenerako lankidetzako 51 proiektu finantzatzeko

*Laguntzak jardueren kostu osoaren %66 eta %88 artekoak dira*

Ostirala, 2018.eko abenduak 7

Nafarroako Gobernuak, azken asteetan, guztira 7.951.044 euro jarri ditu hainbat laguntzarako, garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleria behartsuenei eta ahulenei zuzendutako esku-hartze sozial eta ekonomikoetarako, pobreziaren aurka borrokatzeko eta giza garapena sustatzeko helburu nagusiarekin.

Laguntzen barnean 2019an eta 2020an garatu beharreko jarduerak ere sartzen dira. Laguntzak Garapenerako Lankidetzako Foru Legearen eta Lankidetzako II. Plan Zuzentzailearen barnean kokatzen dira; azken horretan jasotzen dira Nafarroako lankidetzako eremu estrategikoak, eta horietan esku hartu nahi da. Era horretan, proiektuak gobernuz kanpoko erakundeek gauzatzen dituzte, tokiko aurkako alderdien eta herrialdeetako biztanleriaren beraren parte-hartzearekin.

Esku-hartzeak "lehenasunezko zat" jotako herrialdeetan burutuko dira; hala nola, Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonbia, El Salvador, Guatemala, Haiti, Nikaragua, Kongoko ED, Tanzania, Kenia, Mali, Mozambique, Ruanda, Uganda eta Palestinar Herria. Herrialde horietarako II. Plan Zuzentzailea indarrean den denboraldi osoan zehar emandako laguntzen kopuru osoaren %88a jarri da gutxi gorabehera.

Jarduera-modalitateak honako hauek dira:

- Garapeneko jarduera txikiak, urterokoak: 284.690 euro 10 mikroekintzetarako; hots, horien kostu osoaren %73a finantzatzeko da.
- Garapen-proiektuak, urterokoak: 2.940.959 euro 33 proiekturako. Kasu batzuetan, garrantzi handiagoko proiektuen barneko esku-hartzeak dira. Gehienek kasuan, batez beste, kostu osoaren %66 inguru finantzatzeko da.
- Garapen-programak: 4.725.395 euro hiru urterako diseinaturiko 8 programarako. Kasu gehienetan, kostu osoaren %80 inguru finantzatzeko da batez beste.

Legealdiaren hasieratik aurtengo urtera bitarte, deialdi honetarako laguntzen zenbatekoa bikoiztu baino gehiago egin da; izan ere, 2015. urtean 3,1 milioi euroko laguntza izatetik 2018an 6,8 milioi euroko laguntza izatera heldu da (+%118,7).

Zehazki, laguntza hauek eman dira azken urteetan: 3.120.442 2015. urtean, 4.434.068 2016. urtean (+ %42,1), 5.471.594 2017. urtean (+%

23,4) eta 6.824.988 2018. urtean (+ %24,7).